j) Bere jarduera garatuz lor ditzakeen gainerako guztiak.

j) Cualesquiera otros que pudiera obtener en desarrollo de su actividad.

**86. artikulua**

1. Zorra eta ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak Federakundeko kideek soilik sinatu ahal izango dituzte, eta horiek edukitzeak ez du euren gaineko inolako eskubiderik emango, indarreko legerian lehenengoetarako ezarritako interesak izan ezik.

2. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak eskualdatzeko modukoak izango dira, Biltzar Nagusiak ezarritako baldintzekin.

**Artículo 86**

1. Los títulos representativos de deuda y de parte alícuota patrimonial, sólo podrán ser suscritos por los miembros de la Federación y su posesión no conferirá derecho alguno especial a los mismos, salvo la percepción de los intereses establecidos en la legislación vigente para los primeros.

2. Los títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial serán transmisibles en las condiciones que establezca la Asamblea General.

**87. artikulua**

1. B.F.F. – F.V.F.ak bere helburuak betetzeko dituen zenbatekoak kreditu nahiz aurrezki erakunde batean edo banketxean sartuko dira, Federakundearen izenean.

2. Horiek erabiltzeko, lehendakariaren sinadura ez ezik, diruzainaren sinadura ere beharrezkoa izango da.

**Artículo 87**

1. Las cantidades que para el cometido de sus fines tenga disponible la B.F.F. – F.V.F. deberán ser depositadas en una entidad de crédito, ahorro o bancaria a nombre de la Federación.

2. Para su disponibilidad se requerirá, además de la del Presidente, la firma del Tesorero.

## III. KAPITULUA
## AURREKONTUA

**88. artikulua**

1. B.F.F. – F.V.F.ak ekitaldiko aurrekontua onetsiko du urtero, baita aurreko urteko likidazioa eta balantzea ere.

2. Administrazio organoak aurrekontu proiektua egingo du urtero eta hori Biltzar Nagusiak onetsi beharko du.

3. Aurrekontuan, zifrekin eta modu bateratuan nahiz sistematikoan, aditzera emango dira B.F.F. – F.V.F.ak gehienez har ditzakeen betebeharrak eta ekitaldian likidatuko diren eskubideak.

4. Aurrekontua bakarra izango da eta, horren barruan, B.F.F. – F.V.F.aren gastu nahiz diru-sarrera guztiak jasoko dira, bertako organo osagarriak edo erakundeak ere aintzat hartuta. Kudeaketa edo antolaketa beharrizanen eraginez ezinbestekoa denean, kontabilitateko azpierakundeak sor daitezke, sistema nagusian integratuta.

5. Aurrekontuak orekatuta onetsiko dira; ezin izango da defizita duen aurrekonturik onetsi, baldin eta kasuan kasuko kirol administrazioaren baimenik ez badago.

6. Aurrekontua eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, Biltzar Nagusiaren onespena lortu ondoren, kirolaren arloan eskumena duen Foru Aldundiko organora eramango dira.

7. B.F.F. – F.V.F.ko Zuzendaritza Batzak aurrekontu aldaketak erabaki ditzake, Estatutuek horretarako baimena ematen diotenean.

8. Programen arteko kreditu-transferentziek, aurrekontu osoaren %20tik gorakoek, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena beharko dute.

**89. artikulua**

1. B.F.F. – F.V.F.aren aurrekontua, egiturari dagokionez, egokitu egingo da arauz

## CAPITULO III
## DEL PRESUPUESTO

**Artículo 88**

1. La B.F.F. - F.V.F. aprobará anualmente el presupuesto del ejercicio, así como la liquidación y el balance correspondiente al ejercicio anterior.

2. Corresponderá al órgano de administración la elaboración anual del proyecto de presupuestos y su aprobación será competencia de la Asamblea General.

3. El presupuesto expresará, cifrada, conjunta y sistemáticamente, las obligaciones que, como máximo puede contraer la B.F.F. – F.V.F. y los derechos que se prevén liquidar durante el correspondiente ejercicio.

4. El presupuesto será único e incluirá la totalidad de los gastos e ingresos de la B.F.F.-F.V.F., incluidos los órganos complementarios o entidades instrumentales de la misma. Cuando las necesidades de gestión u organización lo requieran, se podrán crear subentidades contables debidamente integradas en el sistema central.

5. Los presupuestos se aprobarán equilibrados y en ningún caso, podrán aprobar presupuestos deficitarios sin obtener antes la autorización de la administración deportiva correspondiente.

6. Una vez obtenida la aprobación de la Asamblea General, se dará traslado del presupuesto y de la liquidación del presupuesto anterior, al órgano de la Diputación Foral que resulte competente en materia deportiva.

7. La Junta Directiva de la B.F.F. – F.V.F. podrá acordar las modificaciones presupuestarias a que esté autorizada de conformidad a los estatutos.

8. Las transferencias de créditos entre programas que supongan más del 20% del presupuesto total requerirán autorización del órgano correspondiente de la Diputación Foral de Bizkaia.

**Artículo 89**

1. El presupuesto de la B.F.F. - F.V.F. se ajustará, en su estructura, a las normas de

ezartzen diren Kontabilitate Plan Orokorreko egokitzapen arauetara. Bestela, Kontabilitate Plan Orokorrak Espainiako kirol federakundeetara egokitzeko ezarri dituen arauetara egokituko da, eta horiek, berriz, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontuen Kontabilitate eta Auditoria Institutuak garatuko ditu.

2. Kirolari profesionalen eta amateurren diru-sarrerak eta gastuak bereizi egingo dira aurrekontuetan.

3. Likidaturiko aurrekontuen ekitaldiko azken soberakina, halakorik egonez gero, hurrengo aurrekontuko diru-sarreratzat jasoko da.

4. Onetsitako ordainketen betearazpen materiala diruzainak egingo du.

**90. artikulua**
1. Ekitaldi bakoitza itxi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, B.F.F. – F.V.F.ko administrazio organoak Biltzar Nagusira bidaliko ditu erakundearen urteko kontuak; horien barruan, balantzea, irabazien nahiz galeren kontua eta memoria ekonomikoa sartuko dira.

2. Zuzendaritza Batzak egiten dituen urteko kontuak lehendakariak eta, bestela, diruzainak sinatu beharko ditu.

**91. artikulua**
Federakundearen diru-sarrera guztiak, kirol adierazpenetan lorturiko irabaziak eta sarrerak ere barne, baita industria, merkataritza, lanbide edo zerbitzu jardueretan lor daitezkeenak ere, oso-osorik bideratuko dira helburu sozialaren garapenera.

Irabaziak ezin dira inondik inora ere Federakundeko kideen artean banatu.

**92. artikulua**
1. B.F.F. – F.V.F.ak ondasun higiezinak zergapetu nahiz besterendu, dirua maileguan hartu eta zorraren zein ondarearen zati alikuotaren tituluak jaulki ahal izango ditu, honako baldintza hauek beteta:

a) Egintza horiek erakundearen ondarea edo helburu soziala arriskuan ez jartzea, eta

adaptación que, del Plan General de Contabilidad, reglamentariamente se determinen. En su defecto, se ajustará a las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad a las Federaciones Deportivas Españolas que desarrolle el Instituto de Contabilidad y Auditoria de Cuentas del Ministerio de Economía y Hacienda.

2. Los ingresos y gastos correspondientes a los deportistas profesionales y aficionados deberán diferenciarse en los presupuestos.

3. El sobrante final del ejercicio de los presupuestos liquidados, si lo hubiere, figurará como ingreso en el siguiente presupuesto.

4. La ejecución material de los pagos aprobados corresponde al Tesorero.

**Artículo 90**
1. Dentro de los tres meses siguientes al cierre de cada ejercicio, el órgano de administración de la B.F.F. – F.V.F. deberá elevar a la Asamblea General las cuentas anuales de la entidad, que comprenderán el balance, la cuenta de pérdidas y ganancias y la memoria económica.

2. Las cuentas anuales que formule la Junta Directiva, deberán estar firmadas por el Presidente y en su caso el Tesorero.

**Artículo 91**
Todos los ingresos federativos, incluidos los beneficios y los premios obtenidos en manifestaciones deportivas, así como los que pudiera obtener del ejercicio de actividades de carácter industrial, comercial, profesional o de servicios, se aplicarán íntegramente al desarrollo de su objeto social.

Bajo ningún concepto se podrá efectuar reparto de beneficios entre los miembros de la Federación.

**Artículo 92**
1. La B.F.F. – F.V.F. podrá gravar y enajenar los bienes inmuebles, tomar dinero a préstamo y emitir títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial, siempre que cumpla las siguientes condiciones:

Que dichos actos no comprometan de modo irreversible el patrimonio de la entidad o su

hori, berriz, profesional eskudunak emandako irizpenaren bidez justifikatu ahal izango da.

b) Egintza horiek Biltzar Nagusian dauden kideen 2/3en gehiengoz baimentzea.

2. B.F.F. – F.V.F.aren ondasun higiezinak zergapetzeko edo besterentzeko, horiek eskuratzeko finantziazioa (guztiz edo neurri batean) herri administrazioen fondoekin egiten denean, beharrezkoa da kasuan kasuko kirol administrazioaren baimena, Biltzar Nagusian aurkeztu baino lehen.

3. Halaber, dirua maileguan hartzeko edo zorraren tituluak jaulkitzeko (B.F.F. – F.V.F.aren urteko aurrekontuaren %25etik gorako zenbatekoan), beharrezkoa da kasuan kasuko kirol administrazioaren baimena, Biltzar Nagusian aurkeztu baino lehen.

**93. artikulua**

1. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak, B.F.F. – F.V.F.ak ematen dituenak, izendunak izango dira.

2. Tituluak 94.1.d) artikuluan ezarritako liburuan inskribatuko dira, eta bertan, eskualdatze guztiak jasoko dira.

3. Titulu guztietan balio izenduna, jaulkitzeko data eta amortizazioaren interesa nahiz epea adieraziko dira.

4. Ezin izango da inoiz ere askaturiko tituluen jaulkipenik egin.

5. Kasuan kasuko kirol administrazioak zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak jaulkitzeko baldintzak ikuskatuko ditu, horiek Biltzar Nagusiari aurkeztu baino lehen, horrek onespena egiteko. Jaulkipenaren baldintzak aztertu eta indarreko legeria urratu egin dela ikusten bada, administrazioak B.F.F. – F.V.F.ari itzuli egingo dio jaulkipen proposamena. Urratzea zuzendu ondoren, berriro aurkeztuko da onespenerako.

6. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak Federakundeko kideek soilik sinatu ahal izango dituzte, eta horien jabetzak ez du euren gaineko

objeto social, lo cual podrá justificarse mediante dictámen emitido por profesional competente.

Que dichos actos sean autorizados por mayoría de 2/3 de los miembros presentes en la Asamblea General.

2. Para gravar o enajenar bienes inmuebles de la B.F.F. – F.V.F. cuya adquisición haya sido financiada, en todo o en parte, con fondos de las administraciones públicas, será preceptiva la autorización de la correspondiente administración deportiva con anterioridad a la presentación a la Asamblea General.

3. Asimismo, para tomar dinero a préstamo o emitir títulos de deuda en cuantía superior al 25% del presupuesto anual de la B.F.F. – F.V.F., será preceptiva la autorización de la correspondiente administración deportiva con anterioridad a su presentación a la Asamblea General.

**Artículo 93**

1. Los títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial que emita la B.F.F.- F.V.F. serán nominativos.

2. Los títulos se inscribirán en el libro previsto en el artículo 94.1. d) en el que se anotarán las sucesivas transmisiones.

3. En todos los títulos constará el valor nominal, la fecha de emisión, y, en su caso, el interés y plazo de amortización.

4. En ningún caso podrá autorizarse emisiones de títulos liberados.

5. La administración deportiva correspondiente supervisará las condiciones de emisión de títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial antes de su presentación a la aprobación de la Asamblea General. Si examinadas las condiciones de emisión, se apreciase infracción de la legalidad vigente, la administración correspondiente devolverá la propuesta de emisión a la B.F.F. – F.V.F. Una vez subsanada la infracción, deberá presentarse de nuevo para su aprobación.

6. Los títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial solo podrán ser suscritos por los miembros de la Federación y su posesión no conferirá derecho alguno

eskubide berezirik emango, indarreko legerian ezarritako interesak izan ezik.

especial a los mismos, salvo la percepción de los intereses establecidos en la legislación vigente.

7. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak eskualdatzeko modukoak izango dira, Biltzar Nagusiak ezarritako baldintzekin.

7. Los títulos representativos de deuda o de parte alícuota patrimonial serán transmisibles en las condiciones que establezca la Asamblea General.

**94. artikulua**
Zuzendaritza Batzak balantzea aurkeztuko du ohiko Biltzar Orokorrean; bertan, partidak, defizita, superabita edo oreka adieraziko ditu. Urte ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

**Artículo 94**
La Junta Directiva presentará el balance en la Asamblea General Ordinaria con especificación de las partidas, reflejando el déficit, superávit o equilibrio. El año económico dará comienzo el 1 de enero y finalizará el 31 de diciembre.

B.F.F. – F.V.F.ak kontabilitate liburuak eramango ditu, estatutu hauetako 96.1 c) artikuluan ezarritakoak, baita beharrezko liburu laguntzaile guztiak eta arlo honetan indarrean dagoen legeriaren arabera ezinbestekoak diren guztiak ere.

La B.F.F. – F.V.F. llevará los libros de contabilidad establecidos en el artículo 96.1 c) de los presentes Estatutos, así como los de carácter auxiliar, que se estimen oportunos, y todos aquellos que sean necesarios conforme a la legislación vigente en la materia.

**95. artikulua**
B.F.F. – F.V.F.a Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 144. eta hurrengo artikuluetan ezarritako auditoria araubideari lotu beharko zaio.

**Artículo 95**
La B.F.F. – F.V.F. deberá someterse al régimen de auditorías establecido en los artículos 144 y ss del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País vasco.

## VII. TITULUA
## DOKUMENTU ARAUBIDEA

## TITULO VII
## DEL RÉGIMEN DOCUMENTAL

### I. KAPITULUA
### FEDERAKUNDEAREN LIBURUAK

### CAPITULO I
### LIBROS FEDERATIVOS

**96. artikulua**
1. B.F.F. – F.V.F.ak, gutxienez, honako liburu hauek eramango ditu nahitaez:

a) Federazio-estamentuen liburua, bost ataletan banatuta: klubena nahiz kirol elkarteena, kirolariena, teknikariena, epaileena eta beste talde batzuena. Horren barruan, euren zerrenda gaurkotua eta alta nahiz baxa hartzeko data jasoko dira.

b) Federakundearen akta liburua; bertan, Federakundeko Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzak harturiko erabakiak egongo dira jasota.

c) Kontabilitate liburuak, eta bertan, Federakundearen diru-sarrerak eta gastuak

**Artículo 96**
1. La B.F.F. - F.V.F. llevará obligatoriamente, como mínimo, los siguientes libros:

a) Libro de estamentos federativos, dividido en cinco secciones: de clubes y agrupaciones deportivas, de deportistas, de técnicos/técnicas, de jueces/juezas y otros colectivos. Contendrá la relación actualizada de los mismos, así como su fecha de incorporación y de baja.

b) Libro de actas de la Federación, donde constarán los acuerdos que adopten la Asamblea General y la Junta Directiva de la Federación.

c) Libros de contabilidad, en el que figurarán los ingresos y gastos de la

adieraziko dira.

d) Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazteko tituluen erregistro liburua. Liburu horietarako eginbideak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarteen Erregistroan egingo dira.

2. Liburu horiek beste xedapen batzuen ondoriozko betebeharren kalterik gabe eramango dira.

3. Liburuak kirol arloan eskumena duen organoak legeztatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundeen Erregistroaren arauetan ezarritakoaren arabera.

Federación.

d) En su caso, libro de registro de títulos de deuda o de parte alícuota patrimonial. Estos libros deberán diligenciarse en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

2. La llevanza de los libros anteriores se entenderá sin perjuicio de las obligaciones que se deriven de otras disposiciones.

3. La legalización de los libros se efectuará por el órgano competente en materia de deportes de conformidad con las normas reguladoras del Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

## II. KAPITULUA
## FEDERAKUNDEAREN ARAUDIAK

**97. artikulua**
B.F.F. – F.V.F.ak, gutxienez, hauxe arautuko du:

a) Lehiaketen antolaketa eta garapena arautzen duten arauak.

b) Diziplina araubidea.

c) Hauteskunde araubidea.

d) Gatazkak epaiketa barik konpontzeko araubidea.

e) Lizentzien araubidea.

**98. artikulua**
1. Federazio-araudiak Bizkaiko Foru Aldundiko Sail egokian aurkeztu behar dira onesteko; horretarako, hirurogei eguneko epea egongo da, Biltzar Nagusiak onesten dituenetik zenbatzen hasita.

2. Araudi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, Euskadiko Erakundeen Erregistroak eskaturiko euskarri informatikoan.

3. Organo eskudunak araudien administrazio onespena egingo du, hiru hilabeteko epean, eskabidea erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita.

## CAPITULO II
## REGLAMENTOS FEDERATIVOS

**Artículo 97**
La B.F.F. – F.V.F. deberá reglamentar como mínimo:

a) Las normas que regulen la organización y desarrollo de las competiciones.

b) El régimen disciplinario.

c) El régimen electoral.

d) El régimen de resolución extrajudicial de conflictos.

e) El régimen de licencias.

**Artículo 98**
1. Los reglamentos federativos se presentan para su aprobación en el órgano correspondiente de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de sesenta días a partir de su aprobación por la Asamblea General.

2. Dichos reglamentos deberán presentarse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el soporte informático que sea requerido por el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

3. El órgano competente procederá a la aprobación administrativa de los reglamentos en el plazo de dos meses a contar desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro.

4. Federazio-araudiak eta horien aldaketak (administrazio onespenaren ostean) Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatuko dira.

4. Los reglamentos federativos, así como sus modificaciones, una vez aprobados administrativamente, se inscribirán en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

5. Federazio-araudien indarraldia horien onespenaren eta, gero, Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatzearen baldintzapean egongo da. Araudi horiek ondoreak izango dituzte inskripzio hori egiten denetik, bai federatuentzat eta bai gainontzekoentzat eta erakundeentzat. Administrazio onespenera arte, federazio-araudiak inolako eraginkortasunik gabeko proiektuak dira.

5. La vigencia de los reglamentos federativos está condicionada a su aprobación y posterior inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco. Dichos reglamentos producirán efectos desde dicha inscripción tanto para los federados como para terceras personas y entidades. Hasta su aprobación administrativa los reglamentos federativos constituyen meros proyectos sin eficacia alguna.

## VIII. TITULUA
## DIZIPLINA ARAUBIDEA

## TITULO VIII
## DEL RÉGIMEN DISCIPLINARIO

**99. artikulua**

1. B.F.F. – F.V.F.aren diziplina araubidea honako hauetan ezarritakoaren arabera arautuko da: Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko X. titulua, Kirol Diziplinaren Araubidea arautu duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua, estatutu hauek eta Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araubidea.

2. B.F.F. – F.V.F.ak diziplina ahala aplikatzen die antolaketa-egitura osatzen duten pertsona guztiei, klubei zein horien kirolariei, teknikariei nahiz zuzendariei, arbitroei eta, orokorrean, B.F.F. – F.V.F.an atxikita egonik, Bizkaiko lurralde eremuan funtzioan garatu edo karguak dituzten guztiei.

3. B.F.F. – F.V.F.ak ez du diziplina ahalik aplikatuko beste lurralde eremu batzuetako eta kirol modalitate bereko federakundeetako kideen kasuan, horien jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan garatu arren. Pertsona horiei, hala eta guztiz ere, federakunde antolatzailearen joko edo lehiaketa arauak aplikatu ahal izango zaizkie.

**Artículo 99**

1. El Régimen Disciplinario de la B.F.F. - F.V.F. se regirá por lo dispuesto en el título X de la Ley 14/1998, de 11 de junio del Deporte del País Vasco, Decreto 7/1989 de 10 de enero por el que se regula el Reglamento de Disciplina Deportiva, por los presentes Estatutos y por el Reglamento de Régimen Disciplinario de la Federación Vasca de Fútbol.

2. La B.F.F. – F.V.F. ejerce la potestad disciplinaria sobra todas las personas que forman parte de su estructura orgánica, sobre los clubes y sus deportistas, técnicos y dirigentes, sobre los árbitros y, en general, sobre todas aquellas personas o entidades que estando adscritas a la B.F.F. - F.V.F. desarrollan funciones o ejercen cargos en el ámbito Territorial de Bizkaia.

3. La B.F.F. - F.V.F. no podrá ejercer la potestad disciplinaria respecto a aquéllos miembros de federaciones de otros ámbitos territoriales y de la misma modalidad deportiva, aunque desarrollen su actividad en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia. A estas personas, sin embargo, si les resultará de aplicación las normas de juego o competición de la federación organizadora.

## IX. TITULUA
## DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

## TITULO IX
## DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

**100. artikulua**

**Artículo 100**

1. B.F.F. – F.V.F.A Biltzar Nagusi bereziak harturiko erabakiz desegingo da, estatutu hauetan ezarritako baldintzekin edo gehiengoekin, edo bestela, epailearen erabakiz desegingo da. Biltzar Nagusiaren erabakiaren aurretik ez da hurrengo atalean ezarritako zergatirik egon beharko.

2. B.F.F. – F.V.F.a honako zergati hauen eraginez desegingo da:

a) B.F.F. – F.V.F.aren onarpen ofizialaren ezeztapena, hori araubide orokorreko elkarte bihurtzen denean izan ezik.

b) Administrazio funtzio publikoak ondo betetzeko ezintasun nabaria.

c) Federazio-organoak geldiaraztea, funtzionamendua ezinezkoa izateko moduan.

d) Emandako funtzio publikoak ez betetzea.

e) Beste kirol federakunderen batekiko bat-egitea.

f) Beste kirol federakundearen batean sartzea.

g) Indarreko legerian ezarritako beste edozein zergati.

**101. artikulua**

1. Lehendakariak Biltzar Nagusirako deialdia egingo du, horrek desegiteko erabakia hartzeko, bi hilabeteko epean, desegitea eragin duen zergatia dagoela jakin duenetik zenbatzen hasita.

2. Federatuek eta kirol administrazio eskudunak ere eskabidea egin ahal izango diote lehendakariari, Biltzar Orokorrerako deialdia egiteko, baldin eta aurreko artikuluko bigarren atalean aipaturiko edozein zergati badago.

3. Biltzar Nagusirako deialdia egiten ez bada, edo erabakirik lortu ezin izanez gero, edo erabaki hori desegitearen aurkakoa

1. La B.F.F. - F.V.F. se disolverá por decisión adoptada por la Asamblea General Extraordinaria, con los requisitos y mayorías establecidos en los presentes estatutos o por decisión judicial. La decisión de la Asamblea General no deberá ir precedida de la concurrencia de las causas previstas en el apartado siguiente.

2. La B.F.F. - F.V.F. deberá disolverse por las siguientes causas:

a) Por la revocación del reconocimiento oficial de la EFF-FVF, salvo en el supuesto de que la misma se transforme en una asociación de régimen general.

b) Por la imposibilidad manifiesta de ejercer adecuadamente las funciones públicas de carácter administrativo.

c) Por la paralización de los órganos federativos de modo que resulte imposible su funcionamiento.

d) Por la falta de ejercicio de las funciones públicas encomendadas.

e) Por su fusión con otra federación deportiva.

f) Por su integración en otra federación deportiva

g) Por cualesquiera otras causas previstas en la legislación vigente.

**Artículo 101**

1. El Presidente deberá convocar a la Asamblea General para que la misma adopte el correspondiente acuerdo de disolución en el plazo de dos meses desde que tenga conocimiento de la existencia de la causa determinante de la disolución.

2. Las personas federadas y la propia administración deportiva competente, también podrán requerir al Presidente para que convoque la Asamblea General si, a su juicio, concurre cualquiera de las causas enumeradas en el apartado dos del artículo anterior.

3. En el caso de que la Asamblea General no fuese convocada o no pudiese lograrse el acuerdo, o éste fuera contrario a la disolución,

izatekotan, Federakundearen desegite judiziala eskatu ahal izango da.

cualquier federado o la propia administración deportiva competente, podrá solicitar la disolución judicial de la Federación.

4. B.F.F. – F.V.F.ko administrazio organoak desegite judiziala eskatu beharko du, federazio-erabakia desegitearen aurkakoa denean edo hori lortu ezin denean.

4. El propio órgano de administración de la B.F.F. – F.V.F. estará obligado a solicitar la disolución judicial cuando el acuerdo federativo fuera contrario a la disolución o no pudiera ser logrado.

5. Administrazio organoko kideek, Biltzar orokorrerako deialdia (desegitea erabakitzeko) bi hilabeteko epean egiteko ardura urratzen dutenek, erantzukizun solidarioa izango dute, edo desegite judiziala bi hilabeteko epean eskatzen ez dutenek, Biltzar Nagusirako ezarritako egunetik zenbatzen hasita, hori eratzen ez denean, edo Biltzar Nagusiaren egunetik zenbatzen hasita, erabakia desegitearen aurkakoa izanez gero.

5. Responderán solidariamente los miembros del órgano de administración que incumplan la obligación de convocar, en el plazo de dos meses, la Asamblea General para acordar la disolución o que no soliciten la disolución judicial en el plazo de dos meses a contar desde la fecha prevista para la celebración del Asamblea General cuando ésta no se haya constituido, o desde el día de la Asamblea General, cuando el acuerdo fuese contrario a la disolución.

**102. artikulua**

1. B.F.F. – F.V.F.a desegin ondoren, likidazio aldia irekiko da, bat-egitea dagoenean edo desegindako federakundearen aktiboaren nahiz pasiboaren lagapen orokorra dagoenean izan ezik.

2. B.F.F. – F.V.F.a desegin ondoren, horrek nortasun juridikoa mantenduko du likidazioan dagoen bitartean. Fase horretan, bere izenari "likidazioan" hitza gehitu beharko dio.

3. B.F.F. – F.V.F.a likidazioan dagoen unetik, administrazio organoak laga egingo ditu bere funtzioak, eta funtzioak likidatzaileek eskuratuko dituzte. Hala eta guztiz ere, administrazio organoko kideek laguntza emango dute likidazio eragiketak egiteko.

4. Federazio-ondarearen likidaziorako, likidazio batzordea izendatuko da eta horrek bost kide izango ditu, berak izendatuta; lehendakaria B.F.F. – F.V.F.ko lehendakaria izango da eta horrek idazkariaren nahi diruzainaren laguntza izango du.

5. Likidatzaileen izendapena eta kargu-uztea Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatu beharko da.

**Artículo 102**

1. Una vez disuelta la B.F.F. – F.V.F. se abrirá el periodo de liquidación, salvo en los supuestos de fusión o cualquier otro supuesto de cesión global del activo y pasivo de la Federación disuelta.

2. Disuelta la B.F.F. – F.V.F., conservará su personalidad jurídica mientras se encuentra en liquidación. Durante esta fase deberá añadir a su denominación la frase "en liquidación ".

3. Desde el momento en que la B.F.F. – F.V.F. se declare en liquidación cesará en sus funciones el órgano de administración, asumiendo los liquidadores sus funciones. No obstante a lo anterior, los integrantes del órgano de administración deberán prestar su concurso para la realización efectiva de las operaciones de liquidación.

4. Para proceder a la liquidación del patrimonio federativo, se nombrará una comisión liquidadora formada por cinco asambleístas, designados por la misma, presidida por el Presidente de la B.F.F. – F.V.F. y asistido por el Secretario y el Tesorero.

5. El nombramiento y cese de los liquidadores deberá inscribirse en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

**103. artikulua**

1. Federakundeko likidatzaileen funtzioak:

a) Administrazio organoarekin batera, B.F.F. – F.V.F.aren hasierako balantzea sinatzea, funtzioak egiten hasten denean.

b) B.F.F. – F.V.F.aren liburuak nahiz posta eramatea eta zaintzea, eta ondarearen osotasuna babestea.

c) Egiteko dauden eragiketak eta B.F.F. – F.V.F.aren likidaziorako behar direnak egitea.

d) Federakundearen ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun higiezinak enkante publikoan saldu behar dira. Salmenta zuzena, berriz, kirol administrazio eskudunak baimendutako kasuetan soilik egin daiteke.

e) Transakzioak eta arbitrajeak hitzartzea, Federakundearen interesetarako komenigarria denean.

f) Hartzekodunei ordaintzea.

g) B.F.F. – F.V.F.aren ordezkaritza egitea.

2. Likidatzaileek erantzukizuna izango dute B.F.F. – F.V.F.an, bertako kideen aurrean eta gainontzekoen edo erakundeen aurrean, kargua betetzean izandako dolo edo zabarkeria larriaren eraginez sortzen duten edozein kalterengatik.

3. Likidazioa amaitu ondoren, likidatzaileek azken balantzea eratuko dute eta hori Biltzar Nagusiak onetsi beharko du; gero, kirol administrazio eskudunera bidaliko da.

**104. artikulua**

1. Kirol administrazio eskudunak likidazioa kontrolatzeko ardura izango duten pertsonak izendatu ahal ditu, indarreko araudian ezarritakoa betetzeko.

2. B.F.F. – F.V.F.an administrazio organorik egon ezean edo horrek bere funtzioak uzten baditu, kasuan kasuko kirol administrazioak likidatzaileak izendatu ahal

**Artículo 103**

1. Incumbe a los liquidadores de la Federación :

a) Suscribir en unión del órgano de administración el balance inicial de la B.F.F. – F.V.F. al comenzar sus funciones.

b) Suscribir en unión del órgano de administración el balance inicial de la B.F.F. – F.V.F. al comenzar sus funciones.

c) Realizar aquellas operaciones pendientes y las nuevas que sean necesarias para la liquidación de la B.F.F. – F.V.F.

d) Enajenar los bienes y derechos federativos. Los bienes inmuebles se venderán necesariamente en subasta pública. Solo procederá la venta directa en aquellos supuestos autorizados por la administración deportiva competente.

e) Concertar transacciones y arbitrajes cuando así convenga a los intereses federativos.

f) Pagar a los acreedores.

g) Ostentar la representación de la B.F.F. – F.V.F.

2. Los liquidadores serán responsables ante la B.F.F. – F.V.F., ante sus miembros y ante terceras personas o entidades por cualesquiera daños que causen por dolo o negligencia grave en el empeño de sus cargos.

3. Terminada la liquidación los liquidadores formarán el balance final que se someterá a la aprobación de la Asamblea General y se remitirá a la administración deportiva competente.

**Artículo 104**

1. La administración deportiva competente podrá designar personas que se encarguen de controlar la liquidación al objeto de que se eleve por el cumplimiento de la normativa vigente.

2. En caso de inexistencia de órgano de administración de la B.F.F. – F.V.F. o abandono de sus funciones, la administración deportiva correspondiente podrá proceder al

izango ditu.

**105. artikulua**
Likidazioen funtzioak honako hau eginez amaituko dira:

a) Likidazioa egitea.

b) Biltzar Nagusiak emandako ahalmenak ezeztatzea.

c) Kasuan kasuko kirol administrazioak ahalmenak ezeztatzea edo ezgaitzea.

d) Epailearen agindua egotea.

**106. artikulua**
1. B.F.F. – F.V.F.ak kaudimenik eduki ezean, likidatzaileek bidezko lehiaketa adierazpena eskatu beharko dute berehala.

2. B.F.F. – F.V.F.a deseginez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak erabakiko du likidazioaren eraginezko ondareari eman beharreko aplikazioa; hala ere, futbol modalitatearen sustapenak eta gauzapenak lehentasuna izango du.

## X. TITULUA
## Estatutuen onespena eta aldaketa

**107. artikulua**
1. B.F.F. – F.V.F.aren Estatutuak onesteko eta aldatzeko, honako prozedura hau erabiliko da:

a) Federakundeko zerbitzu juridikoek aurreproiektuaren zirriborra egingo dute, legez ezarritako oinarriekin.

b) Zirriborroa egin ondoren, Zuzendaritza Batzara bidaliko da, horrek bere txosten arrazoitua emateko.

c) Onespena lortu ondoren, testua bidaliko zaie, banan-banan, Biltzar Nagusiko kide guztiei, eta gutxienez hamabost eguneko epea emango zaie, bidezko zuzenketa edo iradokizun guztiak modu arrazoituan formulatzeko.

nombramiento de liquidadores.

**Artículo 105**
La función de los liquidadores finalizará por:

a) La realización de la liquidación.

b) La revocación de los poderes otorgados por la Asamblea General.

c) La revocación de los poderes o inhabilitación por la correspondiente administración deportiva.

d) Por decisión judicial.

**Artículo 106**
1. En caso de insolvencia de la B.F.F. – F.V.F., los liquidadores deberán solicitar inmediatamente la declaración concursal procedente.

2. En el caso de disolución de la B.F.F. – F.V.F. será el órgano correspondiente de la Diputación Foral de Bizkaia quien decida la aplicación que debe darse al patrimonio resultante de la liquidación, si bien de forma preferente, al fomento y práctica de la modalidad de fútbol.

## TITULO X
## De la aprobación y modificación de Estatutos

**Artículo 107**
1. La aprobación o modificación de los Estatutos de la B.F.F. – F.V.F., se ajustará al siguiente procedimiento:

a) Los servicios jurídicos federativos elaborarán el borrador de anteproyecto, sobre las bases legalmente establecidas.

b) Concluso dicho borrador, se elevará a la Junta Directiva para que emita, motivadamente, su informe.

c) Obtenida la aprobación, se cursará el texto, individualmente, a todos los miembros de la Asamblea General, otorgando un plazo no inferior a quince días para que formulen, motivadamente, las enmiendas o sugerencias que estimen pertinentes.

d) Biltzar Nagusirako deialdia egingo da, horrek onespena egiteko, proposaturiko testua eta aurkezturiko zuzenketak (halakorik egonez gero) eztabaidatu ondoren.

e) Bidezko onespenaren ostean, erabakitakoa Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunera bidaliko da, onespena egiteko eta BAOn argitaratzeko, egutegiko sei eguneko epean.

f) Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko dira, Euskadiko Kirol Elkarteen Erregistroan inskribatzeko.

2. Estatutuak aldatzeko prozesua, legeak hala aginduta egiten denean izan ezik, B.F.F. – F.V.F.ko lehendakariak edo Zuzendaritza Batzako kideen bi herenek proposatuta egingo da.

3. Estatutuak onesteko eta aldatzeko, Biltzar Nagusi bereziaren erabakia beharko da eta erabaki hori bileran dauden kideen 2/3ek hartu beharko dute.

## BESTE XEDAPEN BATZUK

### XEDAPEN GEHIGARRIA

Estatutu hauetan ezarritako epeak, aurkakorik xedatu ezean, egutegiko egunetan zenbatuko dira.

### INDARGABETUTAKO XEDAPENA

Indargabeturik geratuko dira indarrean egon diren Bizkaiko Futbol Federakundeko estatutuak izena eman edo argitaratzen diren arte.

### AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta biharamunean sartuko dira indarrean.

d) Se convocará a la Asamblea General a quien corresponde su aprobación, la cual decidirá, tras discutirse el texto propuesto y las enmiendas en su caso presentadas.

e) Recaída, en su caso, la pertinente aprobación, se elaborará lo acordado al órgano correspondiente de la Diputación Foral de Bizkaia para su aprobación y posterior publicación en el BOB en el plazo de sesenta días naturales.

f) Asímismo, deberán presentarse en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para su inscripción en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco.

2. El proceso de modificación de los Estatutos, salvo cuando éste fuera por imperio legal, se iniciará a propuesta, exclusivamente del Presidente de la B.F.F. – F.V.F. o de dos tercios de los miembros de la Junta Directiva.

3. Tanto la aprobación como modificación de los Estatutos requerirá el acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria adoptado por mayoría de 2/3 de los miembros presentes en la reunión.

## OTRAS DISPOSICIONES

### DISPOSICION ADICIONAL

Los términos y plazos establecidos en los presentes Estatutos, salvo que se disponga lo contrario, se entenderán referidos a días naturales.

### DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogados los estatutos de la Federación Vizcaína de Fútbol que han estado vigentes hasta la fecha en que éstos sean inscritos y publicados.

### DISPOSICION FINAL

Los presentes Estatutos entrarán en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Bizkaia (BOB).